

# ZIRABA PROIEKTUA

## Natura eta herritarrak, berriz elkarrekin.

Botinak jantzi,  
eta ur ertzean  
umeak salabardoarekin  
ibili dira aurten Hernanin.  
Zientzialari lanak egin dituzte,  
animaliak ikusi eta ikertu,  
eta etxe ondoan  
daukatena ezagutu.  
Ziraba proiektuaren  
oihartzuna entzun da,  
Natur Zientzien  
Nazioarteko Topaketan ere.

Umeek eskuetan ederki darabiltzate.  
Zepadiko putzuko bizilagun txikiak  
(argazkia: Ion Garin).

**Aspaldian esan eta esan ari dira irakasle, psikologo, biologo eta abar, gizakia galtzen ari dela naturarekin izandako harremana. Herri eta hirietan bizi diren umeek gero eta gutxiago ezagutzen dituzte inguruko mendi, erreka, animalia, landare, txori eta abar. Badirudi, baita ere, giza joeretan eragin kaltegarria ekarri dezakeela harreman falta horrek. Ez da kasualitatea, hori erremediatu nahian, hainbat lekutan proiektuak sortzea natura edo ingurumena jendeari ezagutarazteko. Horietako bat da Hernanin egiten ari direna, hainbat alor elkartu nahi dituen: natura, zientzia, hizkuntza, eta irakaskuntza, besteak beste. Proiektuari jarri dioten izena gero eta ezagunagoa ari da egiten, tankerako esperientzia gutxi izanik, argi izpi bat eskaini bailezake bide honetan lanean ari direnentzat: Ziraba proiektua.**

**Natura erakusten: Ziraba proiektua gero eta ezagunagoa ari da egiten, tankerako esperientzia gutxi izanik, argi izpi bat eskaini bailezake bide honetan lanean ari direnentzat.**

**2013ko urrian aurkeztu zuten proiektua, 2014-15 urteetarako. Proiektuak beso asko ditu, eta horiek guztiak gorputz bakarrean joan ahal izateko, behar-beharrezkoa izan da talde askok parte hartzea: Aranzadi Zientzia Elkarte, Ereñotzuko Txirrita Eskola, Dobera Euskara Elkarte, Hernaniko Udala, Ereñotzuko Auzo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.**

**Urtebete pasa da proiektua hasi zenetik, eta pozik egoteko arrazoirik ez da falta. Epelerrekan egin diren hiru putzuak izan litezke emaitzarik ikusgarriena, ez baitirudite putzu jaio berriak, beti hortxe egondakoak baizik. Landareak gogotik hazi dira, eta animalia asko erakarri ditu putzuak. Ez animaliak bakarrik, hainbat herritar eta zientzialari ere erakarri ditu putzuko biodibertsitateak. Baditu, gainera, zaindaria auzoan. Ereñotzuko Txirrita eskolako haurrek fin segi diote Zepadiko eboluzioari, hasieratik. Txirrita eskolan urtarriletik ekainera unitate didaktikoa egin dute anfibio eta narrastiei buruz, zientzia, matematika eta euskara lotuz, eta auzoko etxe gehienetara sartu dira, arrobio, ingel, zapo edo suangilei buruzko kontuak.**



**Subebeltza (*Zamenis longissimus*) bil-bil eginda (argazkia: Ander Izagirre).**

### **HERNANIAR BATEK SUBEA BIZIRIK UTZI ZUENEOA...**

Kontu bat kontatuko dizut, eta ez da gezurrezkoa; bene-benetakoa da, hernaniar batek subea bizirik utzi zueneko. Noski, ipuin hori hernaniar askok ezagutzen dute, lehen ere gertatzen baitzen. Baina Ziraba proiektuaren atzetik hasi da halako joera bat, animaliak babestu nahi bat, aurretik ikusten ez zena. Narrasti eta anfibioekin gainera, gizakiak bereziki sentitu izan du atzerakada bat, beldur bat, gorroto bat... urteetan transmititu izan dena. Baina esperientziak erakutsi du hori erremediatu litekeela, eta ezagutzuz gero, pixkanaka beldurra galduz joaten dela. Aurten kasuak izan dira, Ziraba proiektuarekin harremanetan jarri direnak, subea ikusi, argazkiak atera, eta lasai joaten utzi diotela esanez. Subegorri kumea bizirik harrapatu eta Zirabako arduradunei utzi diotenak ere izan dira. Zirabaren asmoen barruan, bat, jendeari anfibio eta narrastia ezagutaraztea da. Horregatik antolatu dira hitzaldiak, subeei buruzko uste okerrak zein diren azaltzeko; edo irteerak, Hernaniko hainbat puntutara, ze biodibertsitate dagoen ezagutzeko. Horrez gain, Hernaniko Kronikan 14 fitxa atera dira 2014an, anfibio

eta narrastiei buruzkoak... Facebookeko orrialdeak ere lan handia egin du, eta bisitari asko erakarri ditu. Ziraba proiektuaren barruan egin direnak ezagutzeko biderik onena horixe, dudarik gabe.

**Zirabaren asmoen barruan, bat, jendeari anfibio eta narrastia ezagutaraztea da. Horregatik antolatu dira hitzaldiak, irteerak, Hernaniko Kronikan ateratako 14 fitxak...**

Horrek guztiak eragina izan du. Gero eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago estimatu, maitatu, interesatu. Interesa piztu du Zirabak, nora jo bat ere bai, hainbaitentzat. Larramendiko gazte koadrila batek suangila arraro bat aurkitu zuen Larramendiko gazte lokalaren leihoan (*Tarentola mauritanica*), eta Zirabara jo zuten zer ote zen jakitera. Maliko ehiztari baten ilobak ere jo zuen Zirabako kideengana, Malin ehizatutako miru beltz baten hankan eraztun bat bilatu omen zutelako, Aranzadi Zientzia Elkartearena. Askotari dira Zepadiko putzuak ikustera Hernani kanpotik, eta zientzialariek ere azaldu dute Hernanirako interesa, beren hainbat proiektutan. Eukaliptadiak ingurumenean duten eragina ikertzeko,



**Epelen egin den Zepadiko putzuak itxura ederra dauka (argazkia: Xabier Rubio).**

Hernaniko ureko *arrobiyuaren* (*Lissotriton helveticus*) egoera aztertu zuten; edo Iñaki Mezquita odonatueta adituak, irakasle eta Aranzadiko kide denak, Zepadiko putzuak ezagutu ditu, eta lehen azterketa bat egin. Bere esanetan, Zepadiko putzuetan 20 burrunzti espezie ibili litezke urte guztian.

Herri bakarrerako asko da anfibio eta narrastiei buruzko 600 zita edo aipu izatea. Hernanik pasa du zifra hori, eta gora doa. Ziraba proiektua egin zenean, anfibio eta narrastiei heldu zitzairen, abiapuntu gisara, hain zuzen, gai hori oso landua zegoelako Hernanin. Iñaki Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta Aranzadiko kide hernaniarrek lanak oso aurreratuak zituzten, eta proiektuaren bultzatzaile ziren aldetik, anfibio eta narrastiak proposatu zituzten ardatz. Lehendik eurek zituzten zita guztiez gain, urte honetan herritarrek emandakoak erantsi behar zaizkie, eta horrela, pixkanaka Hernaniko mapa osatzen ari da, eta gero eta garbiago dago zein espezie zein lekutan dagoen.

**Herri bakarrerako asko da anfibio eta narrastiei buruzko 600 zita edo aipu izatea. Hernanik pasa du zifra hori, eta gora doa.**

### **ZEPADIKO PUTZUA, «NATURARI JUSTIZIA EGITEA».**

Ziraba proiektuaren harribitxia, dudarik gabe, putzua da; Epeleko putzua edo Zepadiko putzua. Putzuak esan beharko litzateke, hiru baitira berez, handi bat beti urarekin dagoena, eta bi txiki: bat beti heze dagoena eta bestea tarteka lehortzen dena. Horrekin ekin zitzaion proiektuari, 2013ko urrian, eta ardatz horren bueltan dantza egin du proiektuak. Naturari zor zitzaion zerbait zen. Hainbat eta hainbat putzu, zingira, lintzura edo hezegune desagertu dira gizakiaren ondorioz, eta bat propio sortzeak balio handia zuen, bai natura aldetik eta baita sinboliko ere. Iñaki Mezquitak berak esana da, Zepadiko putzua dela «naturari edo ingurumenari justizia egitea».

**Hainbat eta hainbat putzu, zingira, lintzura edo hezegune desagertu dira gizakiaren ondorioz, eta bat propio sortzeak balio handia zuen.**

Auzolanean sortu zuten putzua herritarrek. Ereñotzuko Txirrita eskolako ume eta gurasoek protagonismo berezia izan dute putzu horretan, eta sortu zen egunean buru-burari aritu ziren, atxurak hartuta lanean, Aranzadiko kideei eta udalekoei laguntzen. Geroztik ere eurek segi diote gehien putzuari, eta gaur egun, esan liteke beraiena dela putzua, neurri handi batean.

Urtebete pasa da putzua egin zenetik, eta ez zaio antzik ere ematen jaioberria denik. Erabat material naturalekin egin zen, eta erabat itxura naturala dauka. Sortu zeneko lanak eta lokatzak ahaztu dira orain, eta landarediak erabat jan du lekua. Eboluzio horren testigu handienak? Ereñotzuko txikienak. Hiru hilabeterako urez eta txalburuz betea zen, sei hilabeterako inguruko belarrak, ihiak eta lezkak hazi samartuak, eta bederatzi hilabeterako berde-berdea. *Ingela berdiak* makakorro hots ederrarekin ari ziren maiatzerako, National Geographic-eko dokumental baten itxura emanez lekuari:

• Entzun eta ikusi bideoa:

<https://www.facebook.com/video.php?v=631777833579364&set=vb.566782900078858&type=2&theater>

• Bideo hau gure putzuak urtebetean erakarri duen faunaren isla baino ez da. TRUK-HD enpresako Jon Mari Beasain ereñotzuarrak, Ziraba proiektuak hala eskatuta, Zepadin bertan hartutako irudiak erabiliz (gehientsuenak bai behintzat) bideo eder hau egin du:

<http://www.youtube.com/watch?v=ccpqbpvibE>

### INGELA, ZIRABA, ZAPOTTIKIYA...:MUNDUKO ANIMALIAK, HERNANIKO IZENAK.

Eta Hernanin ze animalia dauden jakinda, Hernanin ze izen dituzten jakitea ere ederra da ba... Dobera Euskara Elkartek aukera polita ikusi zuen Ziraba proiektuaren bidez, Hernaniko izenak bildu, eta gero herritarren artean zabaltzeko. Auzoz auzo eta etxez etxe ibili dira Doberako kideak, Aranzadikoen laguntzarekin, anfibio eta narrastien izenak biltzen, eta horiei buruzko kondaira eta pasadizoak biltzen. Gizakiak izena eman izan dio ikusitako

guztiari, eta izen horiek oso bereziak eta kuriosoak dira kasu batzuetan. *Ziraba*, horietan esanguratsuenak, akaso. Ondo Urumea bailarakoa da *ziraba*, *Anguis fragilis*, Europan zeharo zabaldua egon arren. Zirauna esaten zaio euskara batuan, baina hasi Goizuetatik eta Astigarragaraino *ziraba*. Hortik, Ziraba proiektuaren izena. Altxor linguistikoko hori bildu eta zabaltzeko helburua ere beregain hartu du Zirabak, eta konturatu da, zenbait hernaniarrek oraindik bizi-bizirik daukatela altxor hori.

Ingela hitzarekin ere tankerakoa gertatzen da. Hernanin eta Astigarragan oso zabaldua egon da *ingela* izena. Euskara batuko igela esateko, *ingela* eta *iel*a erabili izan dira. Aranoko mugan eta Donostiako mugan *iel*a esaten zaio, baina beste auzoetan nahastuta dago: Ereñotzun eta Osiñagan ia denek *ingela*. Beste auzoetan adinaren arabera, zaharrenek *ingela* gehiago eta gazteek *iel*a edo igela.

Hernaniarren edo urumearren altxorrak dira izen horiek, *zapottikiya* (*Alytes obstetricans*), ureko *arrobiyua* edo lauhankekua (*Lissotriton helveticus*) diren gisan.

Doberak jarraipena eman dio gainera lan honi, eta anfibio eta narrastiez gainera, beste animalia eta landareen izenak hernanieraz biltzen hasi da. Burbunak eta Etsayak proiektua jaio da hortik, eta dokumental bat eta liburu bat bidean dira, 2015 urte bukaerarako.

**Doberak jarraipena eman dio gainera Ziraba proiektuari eta beste animalia eta landareen izenak hernanieraz biltzen hasi da. Burbunak eta Etsayak proiektua jaio da hortik, eta dokumental bat eta liburu bat bidean dira, 2015 urte bukaerarako.**



Ereñotzuko Txirrita eskolako umeak etxean bezala dabilta Zepadin (argazkia: Itziar Miner).



**Koadrila polita bildu zen urriaren 10ean, Zepadiko urteurrenean (argazkia: Marimi Azkue).**

Horri buruzko elkarrizketa luze eta zabala emititu zuen Euskadi Irratiak iazko martxoan, Norteko Ferrokarrilla saioan, eta Euskalnaturaren web orrialdean publikatu zen beste erreportaje bat iraillean:

• Norteko Ferrokarrilla:

**<http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/norteko-ferrokarrilla/1382698/2116638/norteko-ferrokarrilla-2014-03-29-ziraba-proiektua/>**

• Euskalnatura: **<http://www.euskalnatura.net/harian/erreportajeak/item/burbunak-eta-etsayak>**

### **«AMA, NOTONECTA BAT HARRAPATU DEU!»**

Joan den iraillean ederki asko ikusi zuten Ereñotzuko gurasoek, euren umeek zenbat ikasi zuten. Bideoz grabazio bat egiteko eskatuta, Zepadiko putzuan salabardoekin ibili ziren umeak, ikusten zuten guztia esplikatuz. «*Ama, notonecta bat harrapatu deu!*». Umeek eskuetan zera biltzaten 16 mm inguruko xomorro ur zalea. «*Notonecta? Zer da hori?*». Notonecta, metamorfosia, larba, anfibioa... naturaltasun osoz zerabiltzaten umeek, gurasoen eta Aranzadiko teknikarien harridurarako. Anfibio eta narrastien biologia, ohiturak, izenak, hitz teknikoak, beti

erabili izan balituzte bezala esaten zituzten, euren salabardoak Zepadiko putzuan, zer ehizatu, sartzen zituzten bitartean. Zirabako facebookean horrela publikatu zuten arduradunek, irteera hura pasata: «*Ereñotzuko Txirrita eskolako umeek aurreko urtean Zepadin egin zituzten irteerek eta eskolan egindako lanek bere fruitua eman dute. Dударik ez da, Ziraba proiektuaren helburua bazen jendea naturara gerturatzea eta Zepadiko putzua euren moduan sentitzea, harro esan dezakegu: helburuak lortu ditugu!*».

**Ziraba proiektua: «Dударik ez da, Ziraba proiektuaren helburua bazen jendea naturara gerturatzea eta Zepadiko putzua euren moduan sentitzea, harro esan dezakegu: helburuak lortu ditugu!»**

Ereñotzuko umeen aurpegian poza nabaria zen joan den urriaren 10ean, Aranzadiko kideen eskutik diploma bana jaso zutenean, Zepadiko putzuek urtebete egin zuten egunean, hain justu. Urteurrenaren ospakizuna Epeleko aterpean egin zuten, eta auzoko jende asko bildu zen bertan. Ekitaldi asko izan ziren: Iñaki Mezquitaren hitzaldia, Zepadiko putzuetan jarri den panelaren inaugurazioa, argazki-lehiaketako sari-banaketa, eta aurten Ziraba proiektu-



tuan parte hartzen izan diren umeei diploma-banaketa. Diputazioko eta Jaurlaritzako kideak ere bertan izan ziren ekitaldi horretan.

Umeei diplomak eman zaizkie, urte osoan Zepadiko putzuari egin dioten jarraipenagatik eta ikasi duten guztiagatik. Urtarrilean hasi ziren ingela gorriyaren arrautzen bila, eta bilatu, eta eskolara eraman zituzten batzuk, metaformosia zer zen ikasteko. Geroztik arrautza horien eboluzioa ikusi dute, eta inguruko putzuetan eta Zepadin ere laginketak egin dituzte. Martxoan ingelak askatzen ari ziren dagoeneko, arrautza horietatik txalburuak, eta txalburuetatik bi ingel bihurtuak zituztelako. Haiek askatzean, ingela gorriyak eta berdiak eta lauhankekuak ikusi zituzten, bide batez.

Dimentsioak atera, zabalera eta sakonera neurtu, inbentario faunistiko orokorra egin... apirilera Zepadiko putzua ondo aztertuta zeukaten umeek, eta naturaz gain, beste gaitasun batzuk ere landu dituzte unitate didaktikoaren bidez: matematika, adibidez. Putzuak neurtu eta azalerak aterata, segituan konturatu ziren hiru putzuak ez zirela berdinak, ez azaleraz eta ez sakoneraz. Unitate didaktiko hori Txirrita eskolan jarri da martxan, baina

egokitu eta beste edozein eskolatan erabiltzeko moduan jarri da, zenbateko eragina izan duen ikusita.

### HAZIA EREINDA, ETORKIZUNERAKO

Arrastaka-arrastaka 2014an jaiotako Ziraba txikia aurre-ra doa. Datorren urtean Zirabak ere handitzen jarraituko du. Hezegune txikiak sortzen jarraituko du, anfibio eta narrastiei buruzko informazioa biltzen, hitzaldiak ematen, ondarea urumearrei gerturatzeko...

2015ean bukatuko da Ziraba proiektua, ez ordea haren eragina, seguruenera. Komunikabideetan izan du oihartzuna: Euskadi Irratian, Hernaniko Kronikan, Noticias de Gipuzkoan, Diario Vascon, Garan, Euskalnaturako web-orrialdean... Unitate didaktikoa beste zenbait eskolatan errepikatuko da, moldatua baitago dagoeneko; Zepadiko putzuak lanean segiko du, animalien gordeleku eta bazkaleku izaten; Burbunak eta Etsayak egitasmoak natura eta euskara ondareak biltzen segiko du; eta Ereñotzuko umeek txiki izateari utziko diote, baina seguruenera ez auzoko zientzialari edo biologo izateari. Hazia ereinda, zeinek daki zenbaterainoko zuhaitza emango duen...